

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

1/2019 Foru Araua, urtarrilaren 16koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 foru araua aldatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

1/2019 Foru Araua, urtarrilaren 16koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 foru araua aldatzeko

ZIOEN AZALPENA

Arabako Batzar Nagusiek martxoaren 7an onetsi zuten 7/2018 Foru Araua, hainbat zerga-arau aldatzekoa. Berritasun nagusien artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 Foru Araua partzialki aldatzea zegoen. Horren bidez, eta kontuan izanik ekonomia berpizten ari zela, hainbat kenkari egin ziren aurrekoen eta ondorengo errenta-tratamendua hobetzeko, bai eta hobekuntza batzuk gazteek etxebizitza alokatzeko gastuan, eta kenkari berriak landa-gu-neetan etxebizitza erosteko.

Ekonomia hazten ari da oraindik ere. 2017 ekitaldian zerga itunduen ondoriozko diru-bilketa ehuneko 13 hazi zen, eta aurten (2018ko abuztua barne) kudeaketa propioko zerga itunduen diru-bilketa ehuneko 13,00koa da. Gainera, ekitaldi honetan PFZren ondoriozko diru-bilketa aurrekoan baino ehuneko 15,3 handiagoa da.

Hori dela eta, posible eta beharrezkoa da errenta baxuei zerga-karga arintzeko neurri fiskalekin jarraitzea eta politika fiskal sozialak sendotzea.

Halaber, uztailaren 3ko 6/2018 Legearen bitartez, Estatuko Aurrekontu Orokorrak onetsi ziren. Lege horretan arestian aipaturiko ildotik doazen beherapen fiskalak jaso ziren, hau da, errentaren tarte baxuei presio fiskala gutxitze aldera.

Arabako Foru Ogasunean ezin gara joera horretatik kanpo geratu, gure herritarrak beste ogasun batzuetako zergapekoen aldean zigortuko genituzke eta.

Horregatik, hainbat neurri fiskalak proposatzen ditugu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, errentarik baxuenak dituzten langileen tributazioa gutxitzeko zein erretiratuen kolektiboari begira eta adinagatiko kenkariak handitzeko; era berean, jaiotza-tasa handitzeko neurriak jartzen dira mahai gainean.

Proposatzen da tributazio-muga aldatzea 25.000 eurotik beherako laneko errentek aitopena aurkezteko beharra izan ez dezaten. Tributazioaren hobekuntza hau, jardunean ari diren langileentzako ez ezik, erretiratutako pertsonentzat ere onuragarria izango da, eskura duten errenta hobetuko delako.

Familien fiskalitatea, eta jaiotze-tasa sustatzeko asmoz, hobetuko da seme-alaba bakoitzaren jaiotzagatiko 1.000 euroko kenkari bat ezarrita. Bateragarria izango da ondorengoiengatiko gainerako kenkariekin.

Adineko pertsonen zerga-faktura hobetzeko asmoz, proposatzen da, hirurogeita bost urte-tik gorako zergadun bakoitzeko, PFZren kenkariak ehuneko 10 handitzea. Urteko 374 eurokoa izango litzateke, eta 684 eurokoa hirurogeita hamabost urte baino gehiago baditu.

Honako aldaketak egiten dira azaroaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan. Indarrean sartuko dira 2019ko urtarrilaren 1ean:

Lehen artikulua. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 102. artikulua 2. atala honela idatzita geratu da:

“2. Hala ere, ez dute autolikidazioa egin behar izango errentak honako iturri hauetatik baino jasotzen ez dituzten zergadunek:

a) Laneko etekin gordinak. Gehienez 16.800 euro urtero, tributazio indibidualaz. Gehienezko muga hori baterako tributaziorako ezarriko etekin-mota hori jasotzen duten zergadun bakoitzari dagokionez.

b) 16.800 eurotik gorako laneko etekin gordinak, gehienez 25.000 euro urtero tributazio indibidualean, saldu eta hurrengo 3. atalaren kasuetako batean jasota badaude. Gehienezko muga hori baterako tributaziorako ezarriko etekin-mota hori jasotzen duten zergadun bakoitzari dagokionez.

c) Kapitalaren eta ondare-irabazien etekin gordinak, salbuetsiak barne kasu bietan, urteko 1.600 euro baino gutxiagokoak.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango inbertsio kolektiboko instituzioen akzio edo partaidetzen transmisio edo itzulketei dagokienez, baldin eta atxikipen-oinarria, errege-lamendu bidez ezartzen denaren arabera, ez bada zehaztu behar zerga-oinarrian integratu beharreko zenbatekoa kontuan hartuz.”

Bigarren artikulua. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 83. artikulua honela idatzita geratu da:

“83. artikulua. Adinagatiko kenkaria.

1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, 334 euroko kenkari bat aplikatuko da.

Zergaduna 75 urtetik gorakoa bada, aurreko paragrafoan adierazitako kenkaria 612 eurokoa izango da.

1. atal honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko zergadunak 20.000 euroko edo gehiagoko zerga-oinarri izan behar du.

2. 20.000 euro baino gehiagoko eta 30.000 euro baino gutxiagoko 65 urtetik gorako zergadunek 334 euroko kenkaria aplikatuko dute, ken zerga-oinarria 20.000 euroan minoratsetik eratorritako zenbatekoa 0,0334gatik biderkatzeak emandako emaitza.

3. 20.000 euro baino gehiagoko eta 30.000 euro baino gutxiagoko 75 urtetik gorako zergadunek 612 euroko kenkaria aplikatuko dute, ken zerga-oinarria 20.000 euroan minoratsetik eratorritako zenbatekoa 0,0612gatik biderkatzeak emandako emaitza.

4. Artikulu honen ondorioetarako, zerga-oinarritzat hartuko da Foru Arauaren 65. eta 66. artikuluetan jasotako aurrezki zerga-oinarriaren eta zerga-oinarri orokorraren batuketaren emaitza. Zerga-oinarri orokorrak saldo negatiboa eman duenean, zerotzat zenbatuko da arestian aipatutako batukariaren ondorioetarako.

5. Arabako Foru Aldundiak zuzeneko laguntzen aurrekontu-lerro bat sortuko du eta modu ekitatiboan banatuko du Arabako Lurralde Historikoan urtebetetik gora bizi izan diren 65 urtetik gorako herritar guztien artean, baldin eta 20.000 eurotik beherako urteko diru-sarrerara gordinak badituzte pertsona bakarreko familia-unitate baterako, 25.000 eurotik beherakoak bi kideko familia-unitate baterako, 30.000 eurotik beherakoak hiru kideko familia-unitate baterako, eta 35.000 eurotik beherakoak lau kide eta gehiagoko familia-unitate baterako. Laguntzen aurrekontu-lerrorako bi milioi euro bideratuko dira. Zenbateko hori handitu egingo da hurrengo urteetan, kenkaria progresiboki gutxitzearen ondorioz diru-bilketan izandako handitzeari esker, hurrengo atalean adierazi bezala.

Arabako Foru Aldundiak laguntzen-aurrekontu-lerroa mantendu egingo du mugarik gabe, KPIren berbalorazioekin, 2024tik aurrera.

6. 1. eta 2. atalean jasotako 334 euroko zenbateko kengarria, 268 eurokoa izango da 2020 ekitaldirako, 202 eurokoa 2012 ekitaldirako, 136 eurokoa 2022 ekitaldirako, 70 eurokoa 2023 ekitaldirako, eta 0 eurokoa 2024 ekitaldirako.

1. eta 3. atalean jasotako 612 zenbateko kengarria, 490 eurokoa izango da 2020 ekitaldirako, 368 eurokoa 2012 ekitaldirako, 246 eurokoa 2022 ekitaldirako, 124 eurokoa 2023 ekitaldirako, eta 0 eurokoa 2024 ekitaldirako.”

Hirugarrenen artikulua. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 79. artikulua 2. atalari paragrafo bat gehitu zaio, eta honela idatzita geratu da:

“2. Zergadunarekin batera bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko, aurreko atalaren arabera dagokion kenkariak gain, urteko 341 euroko kenkari osagarria egingo da.

Zergadunarekin batera bizi den sei urteko edo sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko, aurreko atalaren arabera dagokion kenkariak gain, urteko 53 euroko kenkari osagarria egingo da. Kenkari hori bateragarria da aurreko paragrafoan ezarritakoarekin.

Arabako Foru Aldundiak zuzeneko laguntzen lerro bat sortuko du, Arabako Lurralde Historikoan urtebete baino gehiago bizi izan diren familia-unitateei jaiotzagatik 1.000 euro emateko, baldin eta 40.000 eurotik beherako diru-sarrera gordinak badituzte. Arabako Lurralde Historikoak urtebete baino gehiago bizi izan diren eta 40.000 eta 75.000 euro bitarteko urteko diru-sarrera gordinak dituzten familia-unitateentzat, jaiotzagatiko laguntza 500 eurokoa izango da. Urteko 75.000 euro gordinetik gora, laguntza 250 eurokoa izango da.”

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA